



ALPINO UZTURREREN 50 URTEAK LIBURUAN

Etzi eguerdian aurkeztuko dute mendi elkartearen lana Tolosako Kultur Etxean; ondoren bazkaria egingo dute »2

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2008-12-11**

VIURTEA 1.582.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



ASIER IMAZ

DAVID ANAUT EUSKARA ZERBITZUKO TEKNIKARIA

«Euskara normalizatzea da gure helburua eta egitekoa»

LEITZA Leitzan, Areson, Aranon eta Goizuetan martxan dago berriro ere Euskara Zerbitzua; David Anaut da bertako arduraduna »7

Saihesbidearen trazatu-proiektua gauzatuko dute

ZIZURKIL Aldundiaren erabakiarekin pozik dago Udala; Trafikoa «nabarmen» murriztuko da »3

Bedaioko II. Azoka igandean, bertako produktuekin.

Prefostaren emanaldia, etzi, Tolosan, Euskararen Egunaren harira »4

Agustin Santanak irabazi du Aizkardik antolaturiko Argazki Rallya »5

LIBURUA SALGAI

Salmenta:
Liburuaren prezioa: 18 €
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzako bazkideak: 14 €

Eskaintza bereziak:
5 liburu 80€
10 liburu 140 €

Salmenta puntuak:
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzako bulegoetan eta Tolosako Aranburu, Babel eta Elkar liburutegietan.



Alpino Uzturre mendi elkarteak bere 50 urteak bildu ditu liburu-bideoan

Tolosa » Etzi eguerdian egingo dute lanaren aurkezpena, Kultur Etxean; ekitaldiaren ostean, bazkaria egingo dute.

ERREDAKZIOA

Alpino Uzturre mendi elkarteak 50 urte betetzen ditu aurten, eta urte horiek guztietako oroitzapenak bildu nahian, liburu-bideoa egin dute. *Uzturretik mundura* izenburupean, etzi, larunbata, aurkeztuko dute, elkartearen sorreraren 50 urte betetzen den egun berean hain zuzen ere. Ekitaldia 12:00etan izango da Tolosako Kultur Etxean.

Lan horretan elkartearen historia jasotzen dute 230 orrialdeko liburuan eta bi orduko filmazioan. «Elkarteko lehendakari guztiekin eta beste hainbat bazkide esanguratsurekin hitz egin ondoren —guztira 60 pertsona baino gehiago liburu eta bideoaren artean—, 50 urte hauetako gertakizun garrantzitsuenak bildu ditugu», azaldu dute Alpinoko kideek.

41 kapitulutan zehar elkartearen sorrera, egoitza, lehen aktibitateak, mendi ibilaldiak, elkarteko kide batzuk egindako mendi (Kenia, Alpes, Pico Comunismo, Gashebrum II), eskalada (Cerro Torre) edo eski (Laponia, Groenlandia) espedizioak, antolatutako eski eta rolleski txapelketak eta Otsolako kanpamendua, egindako eskaladak, mendi bizikletako irteerak parte hartutako mikologia lehia-



Alpino Uzturre Mendi elkartearen lehendakariak guztiak, hilik dauden bi eta Australian bizi den bat izan ezik. HITZA



Mendi elkarteko kideak Uzturren aspaldiko argazkian. HITZA

ketak, eta abar agertzen dira. «Aldi berean mendian hildako bazkideak (Angel Etxedona, Patxi Berrio, Asier Martinez, David Artola) gogoratu nahi izan ditugu lan hone-
tan», diote.

Halaber, anekdota eta bitxikeria ugari (lehendakaria antipodetan, mendizale moja, harmarria, Uliko babarrunjateak, izengoitiak...), 150 argazki baino gehiago, 50. urteurreneko ekitaldiak, dokumenta-


zioa (sorrera akta, laguntza bonoak)... jasotzen dira.

Gainera protagonista nagusi batzuen (Jose Sasieta, Mikel Arrastoa, Antxon Bandres...) testigantza jasotzen da elkarrizketa batzuen bitartez.

Liburuaren aurkezpenaren ostean, bazkaria

Uzturretik mundura lana euskaraz eta gaztelaniaz dago egina, eta Alpino Uzturre mendi elkarteak hiru bazkide izan dira bere egileak. Liburuak Joxemi Saizarrek egin du; bideoa Pablo Dendaluzek, eta ko-ordinazioa Josema Gonzalez-en esku joan da. 50. urteurreneko liburu-bideoa bazkide guztiek jaso ahaliko dute 2009rako federatzen direnean.

Bestalde, lanaren aurkezpenaren ondoren, urtemuga ospatzeko bazkaria egingo dute bazkideen artean, Fronton jatetxean.



Liburu-bideoaren azala. HITZA

Zuzeneko musika eta strip showa etzi, Fronton kafetegian

Tolosa » 23:30ean hasiko da DJren emanaldia, eta ordubeteko saioaren ondoren hasiko da strip show mistoa.

ERREDAKZIOA

Ikuskizun berezia izango da etzi Fronton kafetegian, zuzeneko musika eta strip showa uzartuko dituen, hain zuzen ere.

Etziko gau berezia DJak jarritako musikarekin hasiko da, 23:30ak inguruan. Eta ordubeteko ingurura edo izango da ikuskizunaren txanda, orduan hasiko da, strip show sexya. Emakumezko bat eta gizonzko bat izango dira taula gainean jarritako direnak.

Juantxo Izagirre Fronton kafetegiko jabeak azaltzen duenez, «urtero, Santa Luzia egunean edo jostunen egunean, asteburua egokitzen bada ikuskizun bereziren bat antolatzen saiatzen naiz, eta hori egin dut aurten ere». Hala, ez da lehendabiziko aldiz etziko bezalako ikuskizuna antolatzen duena; «laugarren aldiz da strip show bat egiten duguna; harrera ona izaten du urtetik urtera jendeari gustatzen zaio, asko gerturatzen baitira, esan arren kasualitatez joaten direla», dio Izagirrek txantxetan.

Hala, herritar guztiak gonbidatzen ditu zuzeneko musikaz eta ikuskizunaz goatzera, «guztietan zuzendutako ekimena izango baita».



Mendia protagonista Kirol Astean

KIROLA » Anoetako Kirol Astearen baitan, atzokoan *Alpimanbo espedizioa: trangoko dorreak-Pakistan* mendi diaporama ikusi ahal izan zuten Kattu, Fonta eta Gorki mendizaleen eskutik, argazkian azaltzen denez. Gaurko-
rako, 19:00etan, txirindularitzari buruzko mahai-ingurua antolatu dute udal areto nagusian. Bertan izango dira Abraham Olano, Leire Olaberria, Itxaso Leunda, Josu Agirre eta Oxel Leunda. Aitor Elduaen izango da moderatzailea. Bestalde, Zizurkilgo Kirol Astearen Josune Bereziartu eskalatzailak *Bide berriak, ilusio berriak* ikus-entzunezkoa emango du Atxulondo kultur etxean, 19:30ean. HITZA

'Gabon Kantuz' kontzertua antolatu du Abesbatzen Federazioak

Tolosa » Igandean izango da, Eibarren, eta dirua Caritas erakundearentzat da; Hodeiertz abesbatza ariko da.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak aurten ere *Gabon Kantuz* Gabonetako kontzertua antolatu du. Kontzertu honek ongintza izatera du, Gipuzkoako Gobernu Kanpoko Erakunde desberdinekin elkarlanean burutzen delarik. Aurtengoa Caritas GK Eren alde izango da. Kontzertua igandean, hilaren 14an izango da, Eibarko Coliseo Antzokian, 19:00etan. Animatzeko 3 euro ordaindu beharko dute sarrera, eta hau Kutxanet bidez erosi ahaliko dute.

Ondorengoak izango dira parte hartuko duten federaturiko abesbatzak: Pasaiaiko Ondartxo abesbatza, Tolosako Hodeiertz abesbatza eta Donostiako Otxote Ozenki abesbatza.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbolak: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udalzaindaga: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Udala «pozik» saihesbidearen trazatu-proiektua eta gauzatzea lizitatu delako

Zizurkil » Foru Aldundiak egin du lizitazioa; Udalak azaldu duenez azpiegitura hori «lehenasunezko beharra da» herriarentzat.

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Udalak bere poza azaldu du, «udal-gobernuak hainbat bilera eta kudeaketan egin ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak azkenean trazaketa-proiektuaren idazketa eta saihesbidearen gauzatzea lizitatu duelako». Azpiegitura hori «lehenasunezko beharra da Zizurkilgo herriarentzat», gaur egun udalerritik igarotzen den trafikoa «nabarmen murriztea» ekarriko duelako.

Zizurkilgo saihesbidearen proiektuak 1,7 kilometroko ibiltar-tea gauzatzea aurreikusten du eta Adunako industrialdeko errepide-letokua Zizurkilgo eta Asteasu-ko industrialdetik Olentzoadera doanarekin. Nolanahi ere, jardun beharreko eremu horretako orografikoa tunel bat eta biribilgune bat eraikitzea eskatzen du, eta era horretan herriko zirkulazioa erre-



Elbarrena auzotik igarotzen den errepidean trafikoa gutxiagotuko du saihesbideak. I. GARCIA

gularizatu da. Horrekin batera, azpiegitura berri horrek «nabarmen murriztuko du» Zizurkilgo herrigunetik egunero batez beste zeharkatzen duten 10.000 ibilgailuen kopurua. Gainera, horrek guztiak herriko bizilagunengan duen eragina «are gehiago larriagotzen da, kontuan izanik errepideko zirkulazioaren hein handi bat herriko eta Asteasu-ko industri-

guneen artean dabilzan tonaje handiko kamioiak direla».

Saihesbide berri honen eraikuntzak «herritar guztien bizi-kalitatea nabarmen hobetzea ekarriko du», azaldu du Udalak, «halako trafiko trinkoak eragindako eragozpen guztiak jasan beharrik izango ez dutelako». Udalaren aburuz, «desiraturiko eta denbora luzez itxarondako berri on bat da

proiektuaren lizitazioa», eta behar da esan «hau guztia gobernu-taldeak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izandako elkarrizketen ondorio dela». Azkeneko bilera, esaterako, Maria Angeles Lazkano Zizurkilgo alkatearen eta Eneko Goia Bidetako Azpiegitura diputatuaren artean burutu zen, zeinak 2010 eta 2011 urte bitartean hasiko direla lanak aurreratu zuen.

Ekonomiari eta krisiari buruzko hitzaldiak antolatu ditu Aritzta taldeak

Villabona » 'Ekonomia eta krisia Euskal Herrian' izena jarri diote hitzaldi sortari; lehenengoa hilaren 15ean da.

ERREDAKZIOA

Aritzta Kultur Taldeak hiru hitzaldi antolatu ditu, hilero bat, egun hainbat iritzi sortzen dituen krisi ekonomiari buruz. Hain zuzen, *Ekonomia eta krisia Euskal Herrian* izena jarri diote hitzaldi multzoari. Lehenengo hitzaldia hilaren 15ean izango da eta Joseba Felix Tobar-Arbuluc emango du. Gaia *Gaurko ekonomia sistema eta krisia* izango da. Bigarren goa urtarilaren 12an izango da eta Txente Rekondok Kapitalismoa eta globalizazioa izango du hizpide. Hirugarren goa otsailaren 16an izango da eta Oskar Arantxabalek Euskal Herriko ekonomia eta aukerak gaiari buruz hitz egingo du.

Saioak Mintzolan izango dira eta 19:30ean hasiko dira. Sarrera doan izango da eta hala nahi duenak borondatea eman ahal izango du antolakuntza gastuei aurre egiteko.

Mendi Aste «positiboa»

Asteasu » Sagain Taldeak azaldu duenez, jende gutxi izan zen proiektioetan eta beste ekintzetan izandako erantzuna ona izan zen.

I. GARCIA

Asteasu Sagain dantza taldeak «positibotzat» jo du antolatu berri duten Mendi Astea. Proiektioetara jende gutxi joan bazen ere, beste ekitaldietan izandako parte-hartzearekin gustura agertu dira taldekoak.

Datorren urtera begira proiektioak egiteko asmoa badute, baina «ikusirik beharko dugu nolako antolatu beharko ditugun», azaldu dute. Sagainekoak «oso gustura» daude Gazumen egiteko den parke eolikoari buruzko mahai-inguruak emandakoarekin, bai hizlariak eman zuten jokorekin bai



Azken egunean egindako ibilaldian 22 lagunek parte hartu zuten. HITZA

jendearen erantzunagatik. «Gai horren inguruko eztabaida piztea nahi genuen», azaldu dute.

Bestalde, Mendi Astearen aste-buruan antolatutako orientazio lasterketa eta eskalada txapel-

teak «erantzun ona» izan zutela azaldu dute. Azkenik, azken egunean antolatu zuten ibilaldian, eguraldi txarra egin arren, 22 lagunek parte hartu zutela nabarmendu dute eta ondoren Santamañan egindako bazkarian 45 lagun elkartu ziren.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Abeslaria.** Erromeri eta ezkontza taldeak abeslaria behar du. Deitu telefono zenbaki honetara: 658 70 11 96.

SALGAI

■ **Txakurkumeak.** Gorbea arrazako txakurkumeak salgai. Oso arraza onekoak. Gurasoak lanean. 609 22 38 57.

Gipuzkoako finala jokatzeko txartela lortzen saiatuko dira Behar-Zanakoak

Villabona » Asteburu honetan dituzte partidak bai Lizaso-Pebet bikoteak eta bai Aranburu-Iraeta bikoteak.

ERREDAKZIOA

Joan den asteko partidak irabazi ostean, Lizaso-Pebet bikoteak (22-11) eta Aranburu-Iraeta (22-7) asteburu honetan Gipuzkoako finala jokatzeko txartela lortzen saiatuko dira. Bestalde, lehenak datorren denboraldian lehen mailan ariko dira gutxienez, oraindik elitean jokatzeko promozioa jokatzeko aukera baitute. Bigarrenek, berri, bigarren mailarako txartela lortu dute eta torneoko txapela dute helburu.

Iñaki Lizasok eta Antton Pebet Angeluko pilotariak etzi jokatuko dute Bergarako pilotalekuan, 17:00etan. Aurkariak Esnal-Gorrotxategi izango dira. Irailean elkar ikusi ziren Aginagako txapelketako finalean eta orduan Hernaniarrek 22-8 irabazi zuten.

Aranburu eta Iraeta, berri, finalerdietako joaneko partida Amasan jokatuko dute bihar 21:30ean Oiarzango bikotearen aurka. Beraz, bi aukera izango dituzte finalean sartu ahal izateko. Hauen aurretik Ordozgoti-Inza jubenil bikoteak jokatu du Ataungo taldearen aurka.

Gabon torneoko finalak

Behar-Zanako Gabon torneoko finalak igandean 11:00etan Amasan jokatuko dira jakin arren, bertan arituko diren pilotariak bihar zehaztuko dira. Amasan eta 17:30ean hasita, prebenjamin, benjamin, alebin eta infantil mailan finalerdiak jokatuko dituzte.

Bestalde, Amasan etzi 11:00etan Otaño-Otaegi eta Artaza-Nazabal, Behar-Zanakoak biak, elkarren aurka jokatu dute. 16:00etan Gipuzkoako infantil mailako bakarkako txapelketari dagozkion kanporaketak jokatu dituzte. Bertan, Behar-Zanako Peru Labaka, Jon Erasun eta Iñigo Irisarrik jokatu dute.

LA TERRAZA

- Lastorekin eta zumiarekin egindako altzariak ONDO
- Terraza PASA
- Altzari osagarriak GABONAK
- Otargintza Gipuzkoa kalea, 12

MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta Bataioak, Jaunartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

Euskararen Egunaren harira antolatu duten azken emanaldia, Prefostarena

Tolosa » Etzi eskainiko du kontzertua musika taldeak, Zerkausian, 20:30ean, Udaleko Euskara Batzordeak antolatuta.

ERREDAKZIOA

Euskararen Egunaren karietara antolatu diren ekitaldietan azkena aurkeztuko dute etzi, larunbata. Zerkausian. 20:30etik aurrera. Prefosta taldearen *Euskalkantagintza* emanaldia izango da, Udaleko Euskara Batzordeak antolatuta.

Jakina esan nahi du prefosta hitzak zubereraz, eta azken hitz hori hautatu zuen Miren Fernandez Zarauzko (Gipuzkoa) kantariak bere taldea bataiatzeko. 2005. urtetik hona euskal musikarekiko zaletasun eta gertutasun berezia sentitzen duten musikariek garatzen diharduten proiektua da. Fernandez aspalditik musika munduan lanean ibiliak ziren lagun tal-



Profesta taldeko kideak ariko dira etzi Zerkausian. BERRIA

deaz bat egin eta, Euskal kulturari eta bereziki Euskararen zabaltze-ari erkarpen propio eta apala egiteko asmoz, gure zein aurreko belaundietan zirrara piztu zuten Euskal abestiak berreskuratu eta gaurduzko proiektuari ekin zioten.

Emanaldi lasaia

Proiektua abian jarri zutenetik, gure kultura musikalki merezi duen duintasun osoetik abiatuta eta taldearen konposaketa eta konponketa ikuspegian oinarrituta, proiektu berritzaile eta landua ga-

» EMANALDIA

- **Zer.** Profesta taldearen 'Euskal kantagintza', Euskararen Egunaren harira antolaturiko azken ekitaldia.
- **Non.** Zerkausian.
- **Noiz.** 20:30ean.
- **Partaideak.** Ander Ederra (gitarra), Jon Arruti (baxua eta xirula), Iñaki Oliden (eskusoinua), Jaime Peon (ahotsa), Miren Fernandez (ahotsa), Antxon Sarasua (teklatura eta konponketa) eta Aitor Arratibel (perkusioa).

ratu dute. 90 minutuko emanaldia egiten dute. Lasaia, entzulegoak kontextu eroso baten emanaldia gozatzeko modukoa.

Musikari hauek osatzen dute Prefosta taldea: Ander Ederra (gitarra), Jon Arruti (baxua eta xirula), Iñaki Oliden (eskusoinua), Jaime Peon (ahotsa), Miren Fernandez (ahotsa), Antxon Sarasua (teklatura eta konponketa) eta Aitor Arratibel (perkusioa).

Proiektua martxan jarri zutenetik, gure musika kulturak «mereziduen duintasuna zaintzen» ahalegindu dira, eta berezko ukitua eman nahi izan diete bertsoiei, «gure ekarpena», taldekideek diotenez. Halaber, kantu propioak konposatu izan dituzte. Nolanahi ere «proiektu berritzaile eta landua» garatzea dute helburu.

Fernandezek euskal abeslarien bertsoak eskainiko ditu eta berak prestatutako doinuak ere aurkeztuko ditu, Andoni Egaña, Xabier Perez Euzkitze eta Pako Aristik idatzitako hitzez jantzita.

Laburrak

Herri bilera gaur arau berritzailean inguruan

BELAUNTZA » Gaur, 19:30etik aurrera herri bilera deitu dute Belauntzan, Kultur Etxean. Bertan hainbat gai jorratuko dituzte, tartean, arau berritzaileak. Halaber, *Martintxo* lokalari aurrera begira zein erabilera emango dioten eztabaidatuko dute.

Gaur, zine-forumean 'Tropical Malady' filma

TOLOSA » Zine-forumaren saio berri batean, *Tropical malady* filma izango da gaur ikusgai Leidor aretoan. Bi saio eskainiko dituzte, 19:15ean lehena eta 21:45ean, bigarrena. Weerasethakul zuzendariaren filmak Canneseko Sari Nagusia jaso zuen 2004. urtean.

Merkatu Txikirako material bilketa

IBARRA » Urtero bezala, Ibarrik Misio Taldeak Ekuador, Eritrea, Honduras eta Indiaren alde egingo du Merkatu Txikia. Horretarako materiala biltzen ari dira. Zerbaite utzi nahi dutenek, parrokiako lokalera eraman dezakete 17:00etatik 20:00etara. Diruz laguntzeko aukera ere zabaldu dute, Kutxako 2101 0043 13 0011656899 kontuan.

Drogen inguruko hitzaldia, gaur Kultur Etxean

TOLOSA » Urdirña alkoholiko anonimoen taldea antolatuta, Lourdes del Campo psikiatrak *Alkohol, burua sentsitzen duen droga* hitzaldia emango du gaurkoan Kultur Etxean, 20:00etatik aurrera.

hitza Denda

Lavazza Espresso Point sistema liderra da Europan; sistema horrekin, munduko kafetegirik onenetako kafea bezalakoxea hartuko duzu.



Espresso Point kapsula makina esklusibo eta erabilerrazari esker, espresso italiar peto-petox hartu ahal izango duzu, nahi duzunean.

Horretaz gain, zaazpi mota prepara ditzakezu, baita kafeginagabea, txokolatex, cappuccinoo, kamamilla eta salda ere, merkatuko beste sistemek baino aukera gehiago ematen baitu.

LAVAZZA
ESPRESSO POINT

Coffee Break Kit
+
20 kontsumizio
Opari

egiatako
espresso italiarra

Prezio berezia
HITZAren irakurleentzat:

135 €

Instalatzex eta bidaltzex, dohainik *

Eskaera epea:
abenduaren 14a arte

Eskaerak egiteko:
943-30 43 45

Bidalketa gasturik gabe

hitza info

Erosi berrian

Zuretz edo nahi duzunari oparitzeko!

SOLAGÜEN 2004. urteko ardo **ONDUA**



12 botilako kutxa
72 €

REMELLURI 2004. urteko **ERRESERBAKO** ardo



3 botilako kutxa
40 €
6 botilako kutxa
80 €

Gorrotxategi PRODUKTUAK

Lotea **29 €**

Tolosako Xaxuak
Txakolin txokolatex
Jagurti turroia
masusta gorniarekin
Aktikoo eta merbika
turroia



Mandarina turroia
boilur zuriarekin
Txokolatex turroia
almendrekinekin
Merbika turroia
txokolatexekin
Jagurti turroia
masusta gorniarekin



Turroi askotarikoak
19,50 €

Alfar
OLISA OLD BIRJINA ETRA

6 botilako kutxa
0,5 litro
36 €



Eskaera orain, eta zuzenean eramango dizugu nahi duzun lekura:
Zure etxera • Oparitu nahi duzun lagunaren etxera edo kantokora.

Eskaera epea:
abenduaren 12a arte

Eskaerak egiteko:
943-30 43 45

Bidalketa gasturik gabe

berria

* EUSKOVIAZZA enpresako teknikariak arduratuko dira zerbitzua emateaz.

«Gero eta jende gehiago emanaldietan»

Villabona » Gustura daude Aizkardi Mendi Elkartekoak aurtengo Mendi Astearekin; Argazki Rallya Agustin Santanak irabazi du.



Publikoaren saria jaso zuen Ainhoa Esnaolaren *Hiru kolorek*.



Hirugarren saria jaso zuen Andoni Barandiaran *Zahartzaroak*.

ERREDAKZIOA

«Ematen du asmatu egin dugula emanaldiekin». Aizkardi Mendi Elkarteko kideak gustura daude aurtengo Mendi Asteak eman duenarekin. «Gero eta jende gehiago etortzen da eta badirudi gustura dagoela antolatzen dugunarekin», gaineratu dute.

Mendizale ezagunak eta eskualdekoak uztartzen dituzte emanaldietan. Lehenengo emanaldia Joxe Ramon Agirrek egin zuen eta 50 lagun inguru elkartu ziren Gurea aretoa.

Mendi Asteko bigarren egunean Mikel Legarreta eta Arkaitz Lasa izan ziren. Ezagunak dira Villabonan eta hori nabaritu zen emanaldira billabonatar ugarijoan zirelako, horietatik asko gazteak. Antzekoa gertatu zen hirugarren emanaldian. Unai Zendoia billabonatarra eta bere bidai-lagun Oskar Porras izan ziren protagonistak eta jende ugari ere erakarri zuten.

Hurrengo emanaldia Alberto Iñurrategiren eskutik etorri zen. Gure aretoa beteta izan zen. Betiko emanalditik ezberdindu zen Iñurrategirena eta egungo espedizio-etako mendizaleen inguruan aritu zen, lehenengo ohiturekin konparatuz. Azken emanaldia Juan Valle jok eman zuen. Mendizale ezagunari entzuzera jende asko jan zen eta biata bere emanaldiaren ondoren Argazki Rallyaren sari banaketa zegoelako.

Argazki Rallya

Lehenengo aldiz antolatu dute aurtengo Aizkardikoek Argazki Rallya. *Udazken koloreak* izan zen gaia eta mendi ibilbide jakin baten zehar atera ahal izan zituzten partaideek argazkiak. Vallejoren ondo-

ren egin zuten sari banaketa. Lehenengo saria Agustin Santanak jaso zuen, *Udazken koloreak* izenarekin. Bigarren saria Jokin Sukuntzak eskuratu zuen, *Udazkenak inguratutik* argazkiarekin. Hirugarren sariaren irabazlea Andoni

Barandiaran izan zen, *Zahartzaroa* argazkiarekin. Publikoaren saria Ainhoa Esnaolak jaso zuen, *Hiru kolore* argazkiarekin. Datoren urtean ere Argazki Rallya antolatzeko asmoa azaldu dute Aizkardi elkarteok.



Lehenengo saria jaso zuen Agustin Santanaren *Udazken koloreak*ek.



Bigarren saria jaso zuen Jokin Sukuntzaren *Udazkenak inguratutik*ek.

Bertako produktuez osatutako Bedaioko II. Azoka izango da igandean

Bedaio » Goizean zehar izango da eta animalia askoz gain, eskuz egindako artisautza produktua izango dira ikusgai.

NEREA URBIZU

Datorren igandean, hilak 14, Bedaioko pilotalekuan Bedaioko produktuez osaturiko azoka egingo dute. Aurten bigarren urtea da azoka antolatzen dutena eta gutxienez, iazko giro ona lortzea espero dute.

Goizeko kontua izango da azoka, 10:00etan irekiko dute eta 14:00ak arte iraungo du. Badira ordu batzuk zer dagoen ikusteko eta nahi izanez gero erosteko.

Antolatzaileek esan bezala, «ia baserriar gehienek hartuko dute parte bertan, modu batera ez bada bestera». Animaliak, landareak, barazkiak, eskulanak, lanabesak eta eskulan erakustaldiak izango dira, beste gauza berezien artean.

Animalien artean eskaintza zabalago dago. Izan ere, ez dira faltako behiak, behorrak, arraza askotako ardiak eta ahuntzak, oiloak, oilarrak eta txitak, indioilarrak, kapoiak, untxiak eta txakurkumeak saldu nahi dituenik ere izangoa da. Orain, erosleak falta dituzte.

Arestian aipatu bezala, barazkiak, lore eta landaretan ere izango da aukera: babarrunak, sagarrak, kiwiak, intxaurrak, kalabaza eta garaiko barazkiak... Guztiak Bedaioko baserrietakoak gainera. Hauen artean aurkituko ditugu ere, baserriko ogi erre berria, etxean prestatutako postreak, gazta, irasagarra, eztiak, ukendu naturalak, mondeju eta odolkiak, era zaharrean kontserbatutako txerriki zatiak... Eguberriak ia gainean izanik, egun horietan jaten diren produktuak ere izango dira.

Taloak eta gaztainak

Abenduak agintzen duen moduan, hotza egitea espero dute igandean. Bada, egunean bertan, taloak eta gaztain erre berriak ere prestatuko dituzte hotzari aurre egiteko, nahi dituenak dastatu ahal



Artilea nola egiten den ikusi ahal izango da, joan den urtean bezala. A. OTEZABAL



Iaz, jende andana bildu zen Bedaioko I. Azokan. Postu desberdin asko dago. ANDER OTEZABAL

izateko. Hala ere, joan den urtean abenduaren 16an egin zuten lehen aldiz azoka eta eguraldi atsegina izan zuten.

Eskulanetan berriaz, garaibatean artetik galtzerdiak egiterainoko bidea nola izaten zen ikusi ahal izango da, baita zurezko zotz mehekin saski eta otarrak egiten ere. Eskulanetik ia arterako bidea jorratuko da, beraz, Bedaion. Azoka honetan izango diren produktuak ia gehienak erosi ahal izango dira. Beste batzuk, erakusteko izango dira, alegia, bitxikeria moduan.

Bedaioko produktuez osatutako lote bat zozketatuko dute azokaren baitan

Antolatzaileek jendea animatu nahi du, igandean Bedaiora igotzeko: «Ziur zerbait gustukoak aurkituko dugula etxerako». Gainera, eskaintza zabalago dago.

Bertako produktuen zozketan

Amaieran berriaz, bazkaltzeko garaian beraz, Artubi elkartearen babarrun-jatea prestatuko dute. Bertarako komeniko litzateke aurretik abixatzea, jende kopuruaren arabera janaria prestatzeko.

Azokaz gain, zozketa bat ere egingo dute Bedaion, pilotaleku inguruan. Zozketatuko dutena Bedaioko produktuez osaturiko lote bat da. bi txuleta, bi kilo babarrun, bi gazta, baserriko ogia, sagarrak, kiwiak... Eguberrietan pentsatuz behintzat, zozketan parte hartzeko gogoia ematen du.

Laburrak

Datorren asteburuan kadeteen arteko finalerdia

AMEZKETA • Joan den ostiralean Gipuzkoako Kluben arteko Pilota Txapelketaren baitan pilota partida bat jokatu zuten Amezketa pilotalekuan, Zazpi-Ilturrik eta Antiguako pilota eskolek. Kasu honetan seniorren artekoa izan zen eta ez zen garaipena etxean gertatu, 8-22 galdutik baitzuen Amezketa pilotako klubeko bikoteak. Hala ere, senior mailako bikote bat finalerdietan ariko da. Datorren asteburuan binakako kadeteen partida bat jokatuko da Amezketa; finalerdia, hain zuzen ere, eta arerio, Alegiako Intxurrekoak izango dira. Gogoratu behar da, binakako kadeteen mailan txapeladuan izan direla Amezketa klubak.

Herritarrentzako gaztain-jatea antolatuko du Udalak

ALEGIA • Datorren igandean Alegian Gaztain erreka izango dira herritarrentzat, jateko prest. Alegiako Udalak antolatutako ekitaldia da, aurreko urteetan ere antolatutakoa, hain zuzen ere. Arratsaldean zehar dastatu ahal izango dira, 16:00etatik 20:30era bitartean. Ordu batzuk lehenago Udaleko langile batzuk danbolinetan erretzen ariko dira fruitu hauek, beranduago jan ahal izango diren gaztain preziatu hauek.



Osakidetzako osasun txartel berria eskuragarri

ANOETA • Anoetan Ona txartela eskura daiteke hilaite honetan. Osakidetzako osasun txartel berria da eta KZgunean lor daiteke, astez 10:00etatik 14:00etara bitartean, baina hilaren 19ra arte. 16 urtetik gorakoentzat da eta nortasun agiria eta Osakidetzako txartel urdina aurkeztu behar dira.

Hilberria

AITOR TELLERIA GAZTAÑAGA



Ez agurrik
Ez adiorik
Gero arte baizik

Alkartasuna Lizeoa Herri Ikastolako
guraso, ikasle eta irakasleak

BEASAIN
2008ko
abenduaren 11

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

E Elkarrizketa

DAVID ANAUT » Euskara Zerbitzuko teknikaria



ASIER IMAZ

«Gure helburua eta lana euskara normalizatzea da»

Euskara » Goizetik gauera euskaraz bizitzeko aukera izatea gure hizkuntza normalizatzea da; baina sendagilearekin, kalean, tabernetako oharretan, administrazioan...

ASIER IMAZ

Berrito ere martxan da Euskara Zerbitzua Leitzan, Areson, Aranon eta Goizuetan. David Anaut (Burlata, 1968) Leitzako bulegora itzuli da euskara eskualdean normalizatzeako helburuarekin. Ongi ezagutzen du ingurunea, orain dela 14 urte Leitzara etorri baitzen bizitzera. Euskara Zerbitzuan berriz 10 urte aritu zen lanean, 2005ean eszedentzia hartu zuen arte. Berarekin harremanetan jartzeko, nahikoa da 948 51 08 14 telefono zenbakira deitzea.

Zer da Euskara Zerbitzua?

Euskara bertako hizkuntza da, gurea. Zerbitzua berriz herritarrei edo herriari zuzendutako lana, jarduera, laguntza... Euskara Zerbitzua zer den azaltzeko, nik uste hiru gauza edo hiru galdera argitu behar direla: zer den, zertarako eta nola.

Labur esanda, zein da bakoitzaren erantzuna?

Lehenik, Euskara Zerbitzua udalzerbitzua dela esan behar da. Udalek sortu zuten, udalen tresna bat da eta udalek agintzen dute bertan. Zertarako sortu zuten? Euskara bultzatzeko eta indartzeko; euskara, hizkuntza normalizatu bihurtzeko. Nola? Printzipioz euskararen inguruan udalek helburu batzuk dituzte, gure kasuan euskara normalizatzea da. Horretarako

irizpide batzuk ere badituzte, euskaraz bizi daitekeela, euskara hizkuntza eta lan tresna bat dela eta abar. Helburuak lortzeko urteko planak egiten dituzte eta hauek aurrera eramateko Euskara Zerbitzua arduratuko den teknikari bat kontratatzen dute. Aurrekontu bat jartzen da eta ondoren lanera. Aipatu behar da euskara teknikariak ez duela bakarrik lan egiten, udal-arduradunak eta herritarrak ere hor baitaude.

Noiz sortu zen eskualdean Euskara Zerbitzua?

Duela 18 urte, 1990ean. Martxan jarri zenetik ez du ia etenaldirik izan. 1996-97an urtebeteko etena izan zuen baina gero berriz ere martxan jarri zen. 2005ean eszedentzia hartu nuen eta ordezkobat jarri zuten. Bi urte lanean aritu da baina aurtin, zenbait gora behera izan dituela medio, urte osoan ez da inor egon. Ondorioz, etenaldi handi xamar bat egon da, ia urte osokoa. Bitarte horretan, udal ordezkariak, zinegotziak eta alkateak, zenbait lan egin dituzte eta horri eskerrak mantendu da gutxienezko zerbitzua. Baina teknikariaren faltan, beste gauza asko airean gelditu dira, egin gabe. Irailaren erdian berrito ere Euskara Zerbitzua martxan jarri zen. Irailaren 12an etorri nintzen eta hor aritu gara martxan jarri eta egitekoak aurrera ateratzen.

Gogorra egin al zaizu bigarren hasiera hau?

Eszedentzia hartu nuenean Elhuyar-era joan nintzen. Lan ezberdina da hangoa, batez ere enpresa mundura begira lan egiten da. Hasieran mahaiaren aurrean eseri eta orain zer egin behar dut galdetzen nion neure buruari. Ez nuen lana

hain ongi ezagutzen eta sentsazio arraroa zen, zaila egin zitzaidan hasiera hura. Hemen berriz guztiz ezberdina izan da, lehen segundotik inork deus esan gabe banekien zer egin behar nuen. Motibatuta etorri naiz, lana egiteko gogoz eta hasiera behintzat ona izan da, positiboa. Atasko handi xamarra aurkitu dut baina horrenbeste denboran euskara teknikari ezazulana lan egin izanak asko errotu dizkit gauzak, ezagutza horrek abantaila ematen ditu.

Irailetik hona zer egin duzue?

Lehendabiziko lana zerbitzua berriz ere martxan jartzea izan zen, berrantolatzea. Gero zerbitzuaren harreman guztiak berreskuratu eta 2008ko plana hartu genuen. Jada onartuta zegoen eta hiru hilabete genituen, denbora horretan ahal zen guztia martxan jartzea eta aurrera ateratzea erabaki genuen. Gure lana edo helburua euskara normalizatzea denez, lan hori nolabait atalka, arloka edo jarduerako banatu behar da: aisialdia, kultura, udalen barruko euskara funtzionamendua, Bai Eukarari... Ondoren, atal bakoitzak planifikazio bat eskatzen du, egin beharreko lanak zein diren erabakitzea. Hilabete hauetan besteak beste lan hauek gauzatzen saiatu gara: Leitzeta eta Aresoko Ludotekak martxan jartzen; Bai Euskarari Ziurtagarria eta dinamika egunean jartzen; Marmari aldizkaria osatzen eta argitaratzen; bihar arte Leitzako udallexean dagoen *Euskaraz Bai* erakusketak antolatzen; Leitzako euskara taldearen osaketan parte hartzen; Areso, Leitzeta eta Goizuetako Kultur Elejirako emandakiak antolatzen; Eguberrietako aisialdi-tailerrak antolatzen...

Gasteizko Gobernuan Espainiako bandera jarriko dutela salatu dute

Politika » Bai Euskal Herriari herri ekimenak ikurrinaren defentsan nazio ekitaldia antolatu du Leitzan etzirako.

«EAJ, PSOE eta PPekin bab»

Bai Euskal Herriari herri ekimenaren esanetan, «Eusko Alkartasuna eta ezker abertzalea izan dira Espainiako bandera Gasteizko gobernuaren atarian jartzearen aurka agertu diren bakarrak. Ezker abertzaleak, EAJ espainiar banderaren aurrean makurtzen dela salatu zuen. Eusko Alkartasunak berriz, Ikurrina bakarrik jartzea proposatu zuen».

A. IMAZ

Bai Euskal Herriari herri ekimenak gogor salatu du EAJ «Gasteizko gobernuaren atarian Espainiako bandera jarriko baitu, barruan jada jarria dagoela ere argitu digute».

Bai Euskal Herriari ekimenak EAJ-PNVri egindako galderak erantzuna izan duela ere aipatu dute: «EAJ-PNVk Espainiako ikurrira jarriko dute Espainiaren ordezkariekin bat eginez, PP eta PSOErekin zehazki. Euskal herritarren borondatearen gainetik, Espainiako agintearen erakusle iraukor izan nahi dute inposaketa hauek».

Aldi berean, «geurea defendatzeko eta Geurea Ikurriña! dinamikaren baitan» Leitzan etzi egingo duten nazio ekitaldira gonbidatu dituzte herritarrak. 11:00etatik aurrera, aldarrikapena eta jaia uzartutako dira abenduaren 13an Leitzan.

Diruz gainezka herriko onddoak

LEITZA » Taberna, komertzio, denda eta hainbat zerbitzu elkartu dira Leitzan, herrian zerbitzu hauek edukitzeak duen garrantziak oharatzeko. Aldi berean, bertako zerbitzuak indartu nahi dira eta ekintza bateratu antolatu dute. Horretarako, zozketa bat jarri dute martxan. Urtarrilaren 5ean Karrape Irratiak aipatuko ditu irabazleak. Sariak, 500, 300 eta 200 euroko 3 erosketa bale izanen dira. Parte hartzeko eguneroko erosketak egitea nahikoa izanen da. Denda edo tabernetan onddodun kajatxoak aurkitu eta bertan izena eta telefonoa jarri eta listo! HITZA



5°
2°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	7°
HOTZENA	1°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Zizurkil.** Josune Bereziartu eskalatazailaren *Bide berriak, ilusio berriak* ikus-entzunezkoa 19:30ean Atxulondo kultur etxean.

Hitzaldia

■ **Tolosa.** Lourdes del Campo psikiatrak *Alkohola, burua suntsitzen duen droga* hitzaldia emango du Kultur Etxean 20:00etan.

Zinema

■ **Tolosa.** *Tropical malady* filma Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean.

Deialdiak

■ **Belauntza.** Herri bilera Kultur Etxean, 19:30ean. Arau subsidiarioen berri emango da eta *Martintxo* lokalari aurrera begira zein erabilera eman eztabaidatuko da.

■ **Berastegi.** Bigarren eskuko azokarako materiala (arropa, jostailuak, liburuak, CDak...) Erretoretxera eraman beharko dira 16:30etik 18:00etara. Lortzen den dirua helburu solidario baterako izango da.

■ **Ibarra.** Ibarrik Misio Taldeak Ekuador, Eritrea, Honduras eta Indiaren alde egingo duen Merkatu Txikirako material parrokiako lokaletara eraman daiteke 17:00etatik 20:00etara. Dirua, Kutxako 2101 0043 13 0011656899 kontuan ingratsatu daiteke.

■ **Villabona.** Herria kantuz-erako entsegu 20:00etan musika eskolan.

■ **Tolosa.** Ziklomotoaren inspektzioa egingo dute Ferialekuan hilaen 15ean eta 16ean, 10:00etatik 14:30era, 22 eurotan. Aurretik txanda eskatu behar da Udaltzaingoan (943 675858).

Erakusketa

■ **Zizurkil.** Felix Iñurrategi Fundazioko argazki erakusketa Atxulondon.

Suhiltzaileek ibilgailu berria

TOLOSA ■ Foru Aldundiaren Tolosako suhiltzaile etxeak lur orotako ibilgailu berria du. Edurne Egaña diputatuak suhiltzaile etxeako arduradunari Land Rover berria eman zion, foru jauregiaren aurreko Gipuzkoa plazan egindako ekitaldi batean. Tolosakoarekin batera, Gipuzkoako zortzi foru suhiltzaile etxeei banatu dizkiete ibilgailu berriak. Ibilgailu berri hauen helburua behar bezala hornituta elurteetan bigarren mailako eta landagunee-tako errepideak irekitzea eta iristen zailak diren lekuetatik zaurituak aterata ahal izatea izango da. Foru erakundeak ibilgailu berriak erosteko egin duen inbertsioa 727.100 eurokoa izan da. HITZA



A Agurrak



Urte askoan!

PotoszszO! Zoro honok nolo zondoko oto do Morkol? Zoroonok zozondoro!

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korrealea, 10. 943 676013.

■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanaren eta iritzien erantzunik.

etokaraz **13!**
pauso bat harago
Kontseiluaren 10. urteurrena
* abenduak 13 * BEC * 18:00

laguntzailea hitza

Sarrerak eskuragarri egongo dira egunean bertan Bizkaia Arenako atean

KONTSEILUA

txokoa **h**

Sarrera pareta zozketan!
deitu eta eskuratu



BRUESA GBC
Pamesa Valencia

IGANDEA

ABENDUAK **14-12:30**

ILLUNBE